| Potentzia eta mota | Arrunta € | Bonifikatua € |
|---|---|---|
| >= 10 toneladak | 256,88 | 25,69 |
| < 8 HP | 21,22 | 2,12 |
| 8 - 11,99 HP | 61,70 | 6,17 |
| 12 - 13,99 HP | 124,53 | 12,45 |
| 14 - 15,99 HP | 132,46 | 13,25 |
| 16 - 19,99 HP | 154,50 | 15,45 |
| >=20 HP | 228,15 | 22,81 |
| e) *Traktoreak:* | | |
| < 16 HP | 31,11 | 31,11 |
| 16 - 25 HP | 47,59 | 47,59 |
| > 25 HP | 144,30 | 144,30 |
| f) *Atoiak:* | | |
| < 1 tonelada | 31,11 | 31,11 |
| 1 - 3 toneladak | 47,59 | 47,59 |
| >= 3 toneladak | 144,30 | 144,30 |
| g) *Beste batzuk:* | | |
| Ziklomotorrak | 7,93 | 7,93 |
| *Motozikletak:* | | |
| <= 125 cc | 10,20 | 10,20 |
| 125 - 249,9 cc | 12,67 | 12,67 |
| 250 - 499,9 cc | 25,24 | 25,24 |
| 500 - 999,9 cc | 52,63 | 52,63 |
| >= 1.000 cc | 105,58 | 105,58 |

(II-10112)

•

## Derioko Udala

IRAGARKIA

Osoko Bilkurak, 2011ko urriaren 26an egindako ohiko ekitaldian, Derio udalerriko Kultur Arloko zerbitzuak arautzen dituen Ordenantza behin behinean onetsi du.

Espedientea jende aurrean izan da 30 eguneko epean, 2011ko azaroaren 10eko 214. zenbakiko «Bizkaiko Egunkari Ofizialean» argitaratuz.

Epe horretan alegaziorik, erreklamaziorik edo iradokizunik ez izanik, behin-behineko erabakia behin betiko onartu da automatikoki, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Beraz, Araudiaren testu osoa «Bizkaiko Egunkari Ofizialean» argitaratzen da.

Derio, 2011ko abenduaren 22an.—Alkatea, Lander Aiarza Zallo

### DERIO UDALERRIKO KULTUR ARLOKO ZERBITZUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

**1. artikulua.—*Gaia***

Ordenantza honen xedea da, udal lokalen erabilera pribatua eta Derioko Udaleko Kultur Arloak ematen dituen zerbitzuak eta jarduerak arautzea, baita jarduera horiei prezioak eta tasak jartzea ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki.

**2. artikulua.—*Ordaintzera behartuta daudenak***

Ordenantza honetan araututa dauden tarifak ordaindu beharko dituzte, Derioko Udaleko Kultur Arloak ematen dituen zerbitzu zein jardueren onura duten pertsonek, eta udal lokalen erabilera pribatuaz gozatzen dutenek, horiek erabiltzeagatik tarifa ordaindu behar denean. non tarifa ordaindu behar den.

**3. artikulua.—*Zenbatekoa***

Tarifak eta horien zenbatekoa Alkatetzak finkatuko ditu, dagokion Ordenantza Fiskalak ezartzen dituen zenbatekoaren artean, Osoko Bilkurari horren berri emanez.

| Potencia y clase | Normal € | Bonificada € |
|---|---|---|
| >= 10 toneladas | 256,88 | 25,69 |
| < 8 HP | 21,22 | 2,12 |
| 8 - 11,99 HP | 61,70 | 6,17 |
| 12 - 13,99 HP | 124,53 | 12,45 |
| 14 - 15,99 HP | 132,46 | 13,25 |
| 16 - 19,99 HP | 154,50 | 15,45 |
| >=20 HP | 228,15 | 22,81 |
| e) *Tractores:* | | |
| < 16 HP | 31,11 | 31,11 |
| 16 - 25 HP | 47,59 | 47,59 |
| > 25 HP | 144,30 | 144,30 |
| f) *Remolques:* | | |
| < 1 Tonelada | 31,11 | 31,11 |
| 1 - 3 Toneladas | 47,59 | 47,59 |
| >= 3 Toneladas | 144,30 | 144,30 |
| g) *Otros:* | | |
| Ciclomotores | 7,93 | 7,93 |
| *Motocicletas* | | |
| <= 125 cc | 10,20 | 10,20 |
| 125 - 249,9 cc | 12,67 | 12,67 |
| 250 - 499,9 cc | 25,24 | 25,24 |
| 500 - 999,9 cc | 52,63 | 52,63 |
| >= 1.000 cc | 105,58 | 105,58 |

(II-10112)

•

## Ayuntamiento de Derio

ANUNCIO

El Ayuntamiento en Pleno en sesión ordinaria celebrada el día 26 de octubre de 2011, ha aprobado inicialmente la Ordenanza reguladora de los servivios del Área de Cultura del municipio de Derio.

El expediente ha estado expuesto al público durante el plazo de 30 días, mediante la publicación de un anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia» número 214 de 10 de noviembre de 2011.

Considerando que en dicho plazo no se ha presentado ninguna alegación, reclamación o sugerencia, el acuerdo de aprobación inicial queda automáticamente elevado a definitivo, de conformidad con lo establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de Abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, procediéndose a publicar el texto íntegro del Reglamento en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Derio, a 22 de diciembre de 2011.—El Alcalde, Lander Aiarza Zallo

### ORDENANZA REGULADORA DE LOS SERVICIOS DEL ÁREA DE CULTURA DEL MUNICIPIO DE DERIO

**Artículo 1.—*Concepto***

El objeto de esta ordenanza es el de establecer una regulación que afecte a la utilización privativa de locales municipales, y a los servicios o actividades que presta el Area de Cultura del Ayuntamiento de Derio, así como al establecimiento de precios y tarifas por dichas actividades de conformidad con la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Bizkaia.

**Artículo 2.—*Obligados al pago***

Están obligados al pago de las tarifas regulada en esta Ordenanza, quienes se beneficien de los servicios o actividades prestados por el Área de Cultura del Ayuntamiento de Derio, y quienes disfruten de la utilización privativa de locales municipales, en los que se requiera pago de la tarifa.

**Artículo 3.—*Cuantía***

El establecimiento y las cuantías de las tarifas serán fijados por la Alcaldía, de entre los tramos señalados en la correspondiente Ordenanza Fiscal, dándose cuenta al Pleno.

cve: BAO-BOB-2011b249

Enpresa esleipendunak emandako zerbitzuaren gastuko %30a gutxienez eta %100a gehienez estalduko du zenbatekoak.

Hala ere, giza-, onura-, kultura-, kirol- edo sudu publiko-arrazoien aurrean, erakundeak ez du tarifarik ordainduko edo zenbatekotik behera ordaindu du baldin eta horrela aholkatzen bada.

Derioko Udalak tarifa ezberdinak finkatu ditzake, baldin eta ordaindu behar duenak udalerrian erroldatuta badago ala ez.

**4. artikulua.—*Izen-ematea eta ordaintzeko erak***

4.1. Udal tailerrak eta Udalekuak.

Ordainketa izango da, ikastaro eta/edo Udaleku bakoitzerako.

Ordainketak egingo dira Kultur Arloak ezarritako epean edo epeetan, eta horretarako adieraziko den banketxe kontuan transferentziaren bidez egingo da.

Izen-ematea egiten bada ikastaroa edo tailerra hasita dagoenean, zenbateko osoa ordaindu beharko da. Hala ere, matrikula egiten bada ikastaro osorako (urritik maiatzera/ekainera) eta ikastaro hasita dagoenean, matrikularen zenbatekoa hiruhilabetetan banatuko da, salbu ikastaroa itxaro-zerrendaren bidez egiten bada, horretan hilero banatuko da.

Espezialitate bakoitzean plaza mugatuak izango dira horren ezaugarrien arabera, eta Derion erroldatuta daudenek lehentasuna izango dute. Datu hau frogatuko da udal bulegoetan. Erroldatuta ez daudenen artean, Derioko udalerrian lan egiten duten eskatzaileek lehentasuna izango dute.

Udalekuetan Udalak plaza erabilgarriak finkatuko ditu, lehentasun honen arabera:

1. Udalerrian erroldatuta dauden umeak.
2. Derioko Herri Ikastetxean matrikulatuta daudenak, nahiz eta erroldatuta ez egon.
3. Aldiko egonaldietan dauden umeak.
4. Derioko udalerrian lan egiten duten gurasoen seme-alabak.
5. Derioko udalerriarekin lotuta egon eta programan interesa daukaten familien eskaerak baloratuko ditu Korporazioak.

Aurretiko izen-ematean dauden guztientzat lekurik ez badago, lehentasun-taldean izena eman dutenen artean zozketa egingo da.

Tailer edo jarduera bakoitzeko partehartzaile-kopururik txikiena eta handiena ezarriko da horien ezaugarrien arabera.

4.2. Kultur Birikan eta Larrabarri baserrian udal lokalen erabilera pribatua.

Ordainketa izango da, lokalaren erabilera pribatuan erreserba bakoitzerako.

Erreserba egitean, lokala erabilera pribatuagatik ordaindu beharreko tarifari dagokion diru-kopuruaren erdia ordainduko da fidantza kontzeptuan,

Fidantza hori itzuliko da lokala behar bezala erabili dela eta inolako kalterik ez daudela frogatu ondoren.

Tasa ordainduko da, erreserbatutako lokalean jarduerak hasi baino 48 ordu aurretik gutxienez.

Ordenantza hau ez da aplikatuko Larrabarriko sukaldaritza tailerra txoko bezala erabiltzen denean, erabilera horri dagokion daukalako.

Udalak kontu zenbaki erraztuko du erabiltzaileak ezarritako dirukopurua ordaindu dezan.

El importe deberá cubrir como mínimo un 30% y como máximo el 100% del coste directo del servicio prestado por la empresa adjudicataria.

Sin embargo ante la existencia de razones sociales, benéficas, culturales, deportivas o de interés público que así lo aconsejen, la entidad podrá eximir del pago o fijar tarifas por debajo de este límite.

El Ayuntamiento de Derio podrá establecer tarifas diferenciadas, según el obligado al pago esté o no empadronado en el municipio.

**Artículo 4.—*Inscripción y forma de pago***

4.1. Talleres municipales y Udalekus.

El pago equivaldrá a la inscripción para cada uno de los cursos y/o Udalekus.

El pago se realizará en el plazo o plazos que se indiquen por el Área de Cultura y se efectuarán mediante transferencia bancaria en la cuenta que se indique al efecto.

En el caso de que la inscripción se efectuase iniciado el curso o taller se deberá abonar el importe completo. Sin embargo, en el caso de las matrículas para actividades de curso completo (octubre- mayo/junio) que se realicen una vez comenzado el curso se prorrateará el precio de la matrícula trimestralmente, salvo que se acceda al curso a través de la lista de espera en cuyo caso se prorrateará mensualmente.

El número de plazas en cada especialidad será limitado según las características de la misma y tendrán preferencia los empadronados en el municipio de Derio. Este dato se comprobará en las dependencias municipales mediante inspección del padrón municipal. Entre los no empadronados tendrán preferencia los solicitantes que trabajen en el municipio de Derio.

El Ayuntamiento determinará para los Udalekus el número de plazas disponibles, estableciéndose el siguiente orden de preferencia para la selección de los y las asistentes:

1. Niños y niñas empadronados en el municipio.
2. Matriculados en la Escuela de Derio aunque no estén empadronados.
3. Niños y niñas de acogida.
4. Hijos e Hijas de personas que trabajan en el municipio de Derio
5. En caso de familias interesadas en el programa por su vinculación con el municipio de Derio, la Corporación valorará su solicitud.

En caso de que las plazas no sean suficientes para todos y todas los preinscritos, se realizará un sorteo entre los inscritos del grupo de preferencia para el que no sean suficientes las plazas disponibles.

El número mínimo y máximo de participantes para que cada uno de los talleres o actividades se establecerá en función de la especificidad de cada uno de ellos.

4.2. Utilización privativa de locales municipales en la Kultur Birika y el Caserío Larrabarri.

El pago equivale a la reserva del derecho de utilización privativa del local objeto de uso, en las condiciones que se especifican en la presente Ordenanza.

En el momento de realizar la dicha reserva, se depositará en concepto de fianza un importe igual a la mitad de la tarifa que se abone por la utilización privativa del local.

Esta fianza se devolverá una vez comprobado el correcto uso del local y la ausencia de desperfectos de cualquier tipo.

El abono de la tasa se realizará al menos 48 horas antes del comienzo de las actividades a realizar en el local reservado.

El uso a que se refiere esta ordenanza no será de aplicación cuando su utilice el taller de cocina de Larrabarri como txoko, al tener éste su propia ordenanza reguladora de uso.

El Ayuntamiento facilitará el número de cuenta en el que el usuario ingresará el importe establecido.

cve: BAO-BOB-2011b249

**5. artikulua.—*Erabileran arauak eta funtzionamendua***

1. Erabiltzaile guztiek eskubidea daukate, Derioko Udaleko Kultur Arloko zerbitzuen, instalazioen eta jardueren funtzionamenduari buruzko kexak eta iradokizunak aurkezteko. Horiek idatziz aurkeztuko dira, egilearen identifikazioarekin eta Derioko Udaleko Alkate-udalburu jaunari ala Kultur Arloko arduradunari zuzenduta.

2. Udalak ez ditu beregain hartuko lapurretak, ostuak eta edo kalteak erabiltzaileen ondasunetan jarduerak izaten direnean edo udal tailerretan uzten diren gauzetan

3. Zerbitzuari eutsi diezaiotenean, horri dagokion tarifak garaiz ordainduko dituzte ikasleek eta erabiltzaileek

4. Bajak idatziz jakinaraziko dira.

5. Erabiltzaile guztiek instalazioak eta materiala egoera onean erabiliko dituzte, eta gainerako erabiltzaileei, ikasleei eta pertsonalari behar den begirunea gordeko diete.

Lokalei, tresnei, materialari eta abarrei kalteak eragiten dituzten jardueren erabiltzaileek horien konponketa edo erosketa ordaindu beharko dute.

**6. artikulua.—*Zehapenak eta zehapen-araubideak***

Aurreko artikuluan ezarritakoa ez betetzea arau-haustetzat joko da, eta artikulu honetan adierazitako zehapenak jarriko dira. Arau-hausteak izango dira oso larriak, larriak eta arinak.

1. Arau-hauste oso larriak dira:

a) Kultur Arloak antolatutako tailerretako eta jardueretako pertsonei, erabiltzaileei edo ikasleei fisikoki edo hitzez eraso egitea.

b) Liskarrak, iskanbilak edo eraso fisikoak eragitea ego horietan parte hartzea.

c) Lapurtzea, ostea edo Kultur Arloko instalazioei eta ekipamenduei kalteak eragitea.

2. Arau-hauste larriak dira:

a) Animaliak sartzea edozein motako instalaziotan.

b) Zerbitzuen funtzionamendu egokia nahastea, eta Kultur Arloko pertsonalari edo gainontzeko erabiltzaileei min egitea.

3. Arau-hauste arinak dira:

a) Instalazio bakoitzeko erabilerari dagozkion arau zehatzak ez betetzea.

b) Instalazioak, ekipamendua edo materiala lohitzea edo tratu txarra ematea horiei.

c) Instalazioetan eta Kultur Arloko bulegoetan erretzea.

4. Arau-haustea zehaztea:

a) Arau-haustea zehazteko eta zehapena mailakatzeko honako hauek izango dira kontuan:

— Nahita.

— Zerbitzua nahastea.

— Instalazioetan, zerbitzuetan edo erabiltzaileen eta Kultur Arloko ondasunetan eragindako kalteak.

— Behin baino gehiagotan egitea.

— Partaidetza gradua.

b) Arau-hauste oso larriak eta larriak jarriko dira horretarako espediente zigortzailea egin ondoren.

Zehapen arinengatik zigorrak jartzeko ez da beharrezkoa izango espedientea irekitzea, salbu entzunaldi izapidea interesatuari.

c) Zehapen espedientea izapidetuko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-prozedura Erkidearen Legearen arabera.

**Artículo 5.—*Normas de uso y funcionamiento***

1. Todos los usuarios tendrán el derecho de queja y sugerencia sobre el funcionamiento de los servicios, instalaciones y actividades del Área de Cultura del Ayuntamiento de Derio, debiendo realizarse las mismas por escrito y con la debida identificación del autor y dirigidas al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Derio, o alresponsable del Área de Cultura.

2. El Ayuntamiento no se hace responsable de los hurtos, robos y o deterioros en las pertenencias de los usuarios durante el desarrollo de las actividades o con materiales u objetos que queden depositados en los diferentes talleres municipales.

3. Los alumnos y usuarios deberán satisfacer puntualmente las tarifas que correspondan al servicio al que se acojan.

4. Las bajas deberán notificarse por escrito.

5. Todos los usuarios deberán usar las instalaciones y el material con el trato adecuado, y guardar el debido respeto a los demás usuarios, alumnos y personal.

Los usuarios de las actividades que causaran daños en locales y enseres, materiales, objetos etc. deberán abonar el coste de su reparación o reposición.

**Artículo 6.—*Infracciones y régimen sancionador***

El incumplimiento de las obligaciones establecidas en el punto anterior, constituirá infracción y dará lugar a las sanciones previstas en este artículo. Las infracciones se clasifican en muy graves, graves y leves.

1. Son infracciones muy graves:

a) Agredir física verbalmente o de cualquier otra forma al personal, usuarios o alumnos de los talleres y actividades organizadas por el Área de Cultura.

b) Provocar y participar en riñas, tumultos o agresiones físicas.

c) Hurtar, robar o deteriorar intencionadamente las instalaciones, equipamientos del Área de Cultura y pertenencias de usuarios, alumnos y personal.

2. Son infracciones graves:

a) Introducir animales de cualquier clase en las instalaciones.

b) Alterar el buen funcionamiento de los servicios, y molestar a los demás usuarios o personal del Área de Cultura.

3. Son infracciones leves:

a) El incumplimiento de las normas específicas de uso de cada una de las instalaciones.

b) Ensuciar o maltratar las instalaciones, equipamiento o material.

c) Fumar en las instalaciones y dependencias del Área de Cultura.

4. Determinación de la infracción:

a) Para la determinación de la infracción así como para graduar la sanción a imponer se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

— Intencionalidad.

— Perturbación de servicio.

— Daños producidos en la instalación, servicios o en pertenencias de usuarios y personal del Área de Cultura.

— Reincidencia.

— Grado de participación.

b) Las sanciones muy graves y graves se impondrán previo expediente sancionador instruido al efecto.

Para la imposición de sanciones leves no será preceptiva la previa instrucción de expediente, salvo el trámite de audiencia al interesado.

c) El expediente sancionador se tramitará conforme a lo establecido a la Ley de Régimen Jurídico Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo común.

cve: BAO-BOB-2011b249

5. Zigorrak:

— Arau-hauste oso larrien ondorioz honako zigorrak jarriko dira: 1.501 eta 3.000 euro bitarteko isuna.

Arau-hauste oso larriek eta larriek indarra galduko dute 2 urteko epean.

— Arau-hauste larrien ondorioz honako zigorrak jarriko dira: 751 eta 1.500 euro bitarteko isuna.

— Arau-hauste arinen ondorioz honako zigorrak jarriko dira: 100 eta 750 euro bitarteko isuna.

— Arau-hauste arinen ondorioz instalazioetan kalte-galerak sortzen badira, kalte-galeren konponketari dagokion kostea sartuko da zigorrean.

— Hiru hilabetean hiru arau-hauste arin egiten badira, arau-hauste larri bihurtuko da, arau-hauste larrien ataleko arau-hauste larri bihurtuko da.

— Arau-hauste arinek indarra galduko dute 6 hilabetean.

6. Prozedura zigortzailea:

— Aurrekoan adierazitako zigorrak Alkatetzak jarriko ditu, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 (n) artikuluaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den biharamunetik aurrera indarrean izango da, eta 7/1985 Legearen 65.2 artikuluak jartzen duen epea agortu ondoren.

(II-10142)

5. Sanciones:

— Como consecuencia de las infracciones muy graves se podrán imponer las siguientes sanciones: Multa de 1.501 a 3.000 euros.

Las infracciones y sanciones graves prescribirán en el plazo de 2 años.

— Como consecuencia de las infracciones graves se impondrán las siguientes sanciones: Multa de 751 a 1.500 euros.

— Como consecuencia de las infracciones leves se impondrán las siguientes sanciones: Multa de 100 a 750 euros.

— Si como consecuencia de las infracciones leves cometidas se hubieran producido perjuicios o daños en las instalaciones cabrá imponer en la sanción el coste de la reparación del perjuicio o daño causado. El impago podrá dar lugar a caso de reclamación por vía de apremio.

— Tres infracciones leves cometidas en el plazo de 3 meses darán lugar a una sanción grave del punto del apartado de infracciones graves.

— Las infracciones leves prescriben a los 6 meses.

6. Procedimiento sancionador:

— La imposición de las sanciones previstas en los enunciados procedentes corresponderá a la Alcaldía, de conformidad con el artículo 21.1 (n) de la ley 7/1985, de 2 de abril.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza, entrará en vigor una vez transcurrido el plazo establecido en el artículo 65.2 de la Ley 7/1985 desde el día siguiente a su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

(II-10142)

•

## Udal Kirol Patronatua (Gernika-Lumo)

Gernika-Lumoko Udalaren Kirol Patronatuko Batzorde Nagusiak 2011ko urriaren 18an izandako bilkurako akordioa, honetan, 2011-2012 neguko kanpainako ikastaro eta jardueren prezio publikoak onartu zirelarik (prezio publikoak eransten dira).

Gernika-Lumon, 2011ko abenduak 30ean.—Udalaren Kirol Patronatuburua, Alberto Azueta Gandarias

ERANSKINA

**SANTANAPE KIROLDEGIKO EKINTZAK ETA IKASTAROAK**
***(Urria 2011 – Ekaina 2012)***

*Mantentze gimnasia*

Egunak: Astelehena, asteazkena eta ostirala.

— Orduak: 10:00etan.

— Kuota: Abonatuak: 23,80 €. Ez abonatuak: 38,00 €.

Egunak: Asteartea eta osteguna.

— Orduak: 19:00etan.

— Kuota: Abonatuak: 15,70 €. Ez abonatuak: 30,10 €.

Egunak: Astelehena eta asteazkena.

— Orduak: 20:00etan.

— Kuota: Abonatuak: 15,70 €. Ez abonatuak: 30,10 €.

Antolatzailea: Xixili Gimnasia Elkartea.

*Batuka*

Egunak: Asteartea eta osteguna.

— Orduak: 21:10ean.

— Kuota: Abonatuak: 15,70 €. Ez abonatuak: 30,10 €.

Antolatzailea: Xixili Gimnasia Elkartea.

•

## Patronato Municipal de Deportes (Gernika-Lumo)

Acuerdo adoptado por la Junta Rectora del Patronato Municipal de Deportes de Gernika-Lumo en la reunión celebrada el día 18 de octubre de 2011 en la que se aprobaron los precios públicos de los cursos y actividades de la campaña de invierno 2011-2012 (se adjuntan los precios públicos).

En Gernika-Lumo, a 30 de diciembre de 2011.—El Presidente del Patronato Municipal de Deportes, Alberto Azueta Gandarias

ANEXO

**CURSOS Y ACTIVIDADES POLIDEPORTIVO SANTANAPE**
***(Octubre 2011 – Junio 2012)***

*Gimnasia de mantenimiento*

Días: Lunes, miércoles y viernes.

— Horas: 10:00 h.

— Cuota: Abonados: 23,80 €. No Abonados: 38,00 €.

Días: Martes y jueves.

— Horas: 19:00 h.

— Cuota: Abonados: 15,70 €. No Abonados: 30,10 €.

Días: Lunes y miércoles.

— Horas: 20:00 h.

— Cuota: Abonados: 15,70 €. No abonados: 30,10 €.

Organizado por: Xixili Gimnasia Elkartea.

*Batuka*

Días: Martes y jueves.

— Horas: 21:10 h.

— Cuota: Abonados: 15,70 €. No abonados: 30,10 €.

Organizado por: Xixili Gimnasia Elkartea.

cve: BAO-BOB-2011b249